

Balorezko proposamena

Egoera

Urtean mundu mailan 150.000 milioi jantzki berri egiten dira. Horietatik %30 ez dira inoiz saltzen. Galera honek sistemari 210.000 milioi euroko galera suposatzen dio urtero.

Gainera, enpresak eta kontsumitzaileak urtero berrerabili beharrean botatzen duten jantzien ondorioz munduko ekonomiak 460.000 milioi euro galtzen ditu. Ospe handiko moda kateak 12.8 milioi jantzi tonelada botatzen dituzte eta erretzen dituzte urtero. Gaur egun, ehungintza munduan gehien kontaminatzen duen bigarren industria mota da, petroleoaren atzetik eta ganadutegiaren aurretik.

Zer eskaintzen dugu?

Gure enpresak zenbaki horiekin bukatzeko proposamena du. Gure enpresak arropa zaharrak berri bilakatzea nahi du, pertsonak gehiago erostea saihesteko, urtero galtzen den dirua murrizteko eta kutsatze kantitatea murrizteko. Arropa birziklatuak berri egiteaz gain, hauek pertsonalatuak izateko aukera dago, hau da, bezeroak produktu edo diseinuren bat gustuko balu baina tailagatik ez balitzaio ondo geratuko, gu arduratuko ginatke neurrikoa den jantzia egitera. Izan ere, badakigu pertsona askorentzat neurri aproposkoa den jantzi bat aurkitzea zaila dela.

